# Barakaldoko mugimendu feministak, hainbat ekimen antolatu ditu Barakaldoko jaietarako

2018/07/11




Ostiralean hasiko dira Barakaldoko jaiak eta mugimendu feminista presente egongo da jai hauetan, ekimen ezberdinetan parte hartzen edota antolatzen. Gaur goizean aurkeztu dute egitaraua feminista, ostiralean bertan hasiko dena egun feministarekin. Egitaraua 13:30ean hasiko da Santa Teresa plazan pregoi batekin. Ostean herri bazkaria, tailer eta jolas feministak… egingo dituzte. Egun honen helburua jai moreak eta espazio publikoaren erabilpena aldarrikatzea izango da. Larunbaten presente egongo dira ekitaldi ezberdinetan: jaitsieran, pregoian, txosnen irekieran… Gauean Berri-Txarrak-en kontzertua bukatu ondoren manifestazioa egingo dute: gaua segurtasunez eta askatasunez bizi eta okupatzeko eskubidea aldarrikatzeko. Gainera edozein eraso sexista gertatzen bada, erantzungo dutela argi utzi dute.


Uztailak 13 de Julio
kaldero Feminista
Erasorik gabeko gune ez-mistoa
Espacio no-mixto libre de agresiones
13.30 Txupinazo morea
(Santa Teresa enparantzan,bagatza)
15.00 Bazkaria (10 euro)
Baserri entsalada/ Ensalada campera
Avena-bolak saltsan /
Albóndigas de avena en salsa
Mazedonia
Kafea
+ Bazkaloste musikatua/
Sobremesa musical
"Felixa" rekin
17.00 kaldERO feminista tailerra/
Taller feminista kaldERO
(txosnagunean)
19.00 Trivial Poteo
(txosnagunean)
*Bazkarirako izen-ematea Argalario, Eguzki eta Pasaje tabernetan
Da el nombre para la comida en las tabernas Argalario, Eguzki y Pasaje
Ez dira onartuko eraso sexista, LGTBIQ+fobikorik, arrazista, edota klasistarik
No se permitirá ningún tipo de agresión sexista, LGBTI+fobia, racista ni clasista

[illegible]